


PRESTAKUNTZA ESKAINTZA



GAIAK

- BERDINTASUNA, GENERO EKITATEA, FEMINISMOA
- ZER GERTATZEN DA GAUR EGUN LATINOAMERIKAN
- BIZIMODU JASANGARRIAK, DESAZKUNDEA ETA KONTSUMO KONTZIENTE ETA ARDURATSUA
- ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA ETA LANKIDETZA





**mugarik
gabe**

Argitaratzailea:



www.mugarikgabe.org

 Mugarik Gabe

 @mugarikgabe

 mugarikgabeongd

ARABA

"Itziar" Elkarteen Etxea - Zalburu Plaza z/g
01003 Vitoria-Gasteiz
945 277 385 – araba@mugarikgabe.org

BIZKAIA

Vicente Garamendi auzunea 5, behea
48006 Bilbao
94 415 43 07 – bilbao@mugarikgabe.org

GIPUZKOA

Katalina Elizegi 46, behea, 4.atea
20009 Donostia
943 445 977– gipuzkoa@mugarikgabe.org

2023ko uztaila

Maketazioa: [Binari Comunicación](#)



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala (CC BY-NC-ND 4.0)

Dokumentu hau Creative Commons lizentziarekin dago. Edukia libreki zabaltzea, kopiatzea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legezko akaberarik erabili.

Lizentzia osatua: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_

AURKIBIDEA

1. ESKAINTZA.....	4
2. EDUKIAK.....	6
2.1. BERDINTASUNA, GENERO EKITATEA, FEMINISMOA.....	6
2.2. ZER GERTATZEN DA GAUR EGUN LATINOAMERIKAN	7
2.3. BIZIMODU JASANGARRIAK, DESAZKUNDEA ETA KONTSUMO KONTZIENTE ETA ARDURATSUA	7
2.4. ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA ETA LANKIDETZA.....	8

1 ESKAINNTZA

Mugarik Gabe-tik Prestakuntza Proposamen hau egin dugu, bi helburu erreferentzialekin. Alde batetik, beharrezkoa eta premiazkoa den eraldaketa sozialari beste ekarpen bat egitea, desparekotasunez eta bidegabekeriaz betetako sistemaren esparruan. Bestalde, hausnarketarako eta elkartruke kolektiborako espazioak sortzea, ezinbestekoak baitira geure eta zeuen jarduna hobetzeko. Hala, hausnarketak eta salaketak partekatzeko tresna da prestakuntza, baita aukera bidezko eta demokratikoenetan sakontzeko ere.

METODOLOGIA

Ikastaro eta tailer guztietan parte hartzeko metodologiak planteatuko dira, beraz, talde ez oso handiak izatea gomendatzen da. Azalpen-tarteak txandakatuko dira aztertutako elementuak eztabaidatzeko edo praktikara eramateko beste espazio batzuekin: talde-dinamikak, talde-lana... Metodologiak aukeratzean berariaz zainduko da emakume eta gizonen arteko berdintasunezko parte-hartzea.

HARTZAILEAK

Aldatu egingo dira tailerren arabera, baina, batez ere, elkarteei, GGKEei eta gizarte-mugimenduei zuzenduta daude,

baita unibertsitateko edo antzeko ikasleei edo bestelako erakundeei ere.

IRAUPENA

Saio motzetarako 2 eta 4 ordu tarteko iraupena proposatzen dugu. Gehiago sakondu nahi bada, gehienez 20 orduko saioak ere antolatu ditzakegu gaiaren arabera.

IRAKASLEAK

Gai bakoitzari berariaz lotutako Mugarik Gabe-ko lantaldeko hainbat pertsonak emango dituzte ikastaroak, gai horretan ibilbide luzea eta esperientzia handia dutenak.

HIZKUNTZA

Eskaintzen diren ikastaroetako batzuk, ez guztiak, gaztelaniaz eta euskaraz eskaintzen dira; galdetu aldeztu aurretik, premiaren arabera.



SALNEURRIA ETA EZAUGARRIAK

Oinarrizko proposamena **2 orduko tailerrak dira, 180€ salneurriarekin bakoitza** (desplazamenduak kontutan izan gabe).

Horrez gain, **salneurri bereziak** ditugu formazio bat baino gehiago interesatzen bazaizu:

- 2 tailerretako paketea: %10eko deskontua
- 3 tailerretako paketea: %15eko deskontu

Edonola ere, **hainbat beharretara egokitu gaitzke**, eta gurekin harremanetan jartzera animatzen zaitugu, eskaera espezifikogoren bat baduzu edo zure neurria egindako tailer edo ikastaroren bat antolatu nahi baduzu, ondoren azalduko ditugun gaietako bat baino gehiago jorratuko dituen.

Gainera, prestakuntza hau **FUNDAEren bidez hobari daiteke**. Zure erakundeak edo enpresak laguntza behar badu kudeatzeko, galde iezaguzu. Informazio gehiago: fundae.es/enpresak

Jar zaitez gurekin harremanetan:
xabi@mugarikgabe.org - 943 44 59 77



2 EDUKIAK

2.1. BERDINTASUNA, GENERO EKITATEA, FEMINISMOA

1. NAZIOARTEKO LANKIDETZA FEMINISTA BAT

Ikastaro honetan ibilbide bat proposatzen dugu emakumeen giza eskubideen aldeko borroketan barrena; lehenengo olatuetatik hasita, genero teorian eta egungo proposamen eta eztabaidetara. Bilakaera hau nazioarteko lankidetzan aztertuko dugu, emakumeekin eta pobrezia-aren feminizazioarekin diskurtsoekin hasita, eskubideen sendotzea eta ahalduntze prozesuekin jarraitu eta azken egungo egoera eta erronka nagusietako batzuk aztertuko ditugu.

2. NOLA INPLIKATU AKTIBOKI INDARKERIA MATXISTEN AURKA

Kontzeptuen eta estrategien azken urteotako bilakaera aztertuko dugu, hala nola indarkerien ikusezintasuna, aitortza eta egungo egoera. Halaber, landu egingo dugu ere estrategia berriak eta oraindik indarrean daudenak indartzeko beharra: prebentzioa, autodefentsa, ikerketa, memoria eta erreparazioa, besteak beste, betiere giza eskubideen ikuspegitik eta ikuspegi feministatik.

3. ZURE ELKARTEAK FEMINISTAGO IZAN NAHI DU ETA EZ DAKI NOLA?

Gure antolakuntza-erperientzian oinarrituta, antolakundeetan errepikatzen ditugun genero desparekotasunei dagokien beharrezko kontzientzia hartzea landuko dugu, baita gure praktikak eta prozedurak aldatzearen garrantzia ere; ez soilik praktika eta prozedura indibidualak, baita antolakuntzari dagozkionak ere. Hori guztia, antolakuntza-aldaketa feministaren ikuspegitik, eta proposamen teorikoak eta tresna praktikoak erabiliz.

4. HEZKUNTZA FEMINISTA IZANDO DA EDO EZ DA IZANGO

Hezkuntza arloan berdintasunak gaur egun duen egoeraren azterketa kritikoa eskainiko dugu, azken aldiko aurrerapenak ere berrikusiz, eta aldaketarako eta aurrera egiteko neurri eta tresna zehatzak proposatuz hezkidetzaren bidetik.



2.2. ZER GERTATZEN DA GAUR EGUN LATINOAMERIKAN

1. LATINOAMERIKAKO MUGIMENDUAK: PROZESUAK ETA ALTERNATIBAK

Ibilbide bat proposatzen dugu Latinoamerikako azken hamarkadetako errealitate politiko eta sozialean barrena. Iragan hurbila ezagutzeak lagundu egingo digu egungo errealitatea testuinguruan kokatzen, zer eta zergatik gertatzen den ulertzen. Era berean, hausnartu egingo dugu Latinoamerikako herriek eta mugimendu sozialek azken urteotan planteatzen dituzten proposamenei eta alternatibei buruz, bai maila teorikoan, bai prozesu politikoetako aurrerapen praktikoetan.

2. LATINOAMERIKAKO MUGIMENDU INDIGENA

Latinoamerikako herri indigenek eredu neoliberalarekiko alternatiba errealak planteatzen dituzte gaur egun, hala nola estatu-nazioaren kritikatik estraktibismora, giza eskubide indibidualen errespetu eta egikarizetik giza eskubide kolektiboetara eta naturaren eskubideetara. Proposamenez gainezka dagoen mugimendu bizia dira, eta, horregatik, kontinenteko prozesu aberasgarrietako baten protagonista dira. Horrela, hausnartu egingo dugu honako kontzeptuen inguruan: lorpenak eta erronkak; herri indigenen alternatibak: Ongi Bizitzea; deskolonizazioa eta despatriarkalizazioa jendarte berrien proposamen gisa. Eta, baita ere, nola eta zergatik lan egin herri indigenekiko elkartzasunetik.

2.3. BIZIMODU JASANGARRIAK, DESAZKUNDEA ETA KONTSUMO KONTZIENTE ETA ARDURATSUA

1. AZTERTU, ALDARRIKATU ETA ARITU: NOLA IBILI BIZIMODU JASANGARRIETARANTZ FEMINISMO ETA EKOLOGISMOAREN BIDETIK

Erronka handiak ditugu aurrean: petrolioaren agortzea, krisi klimatikoa, prekaritatea, eskuin muturraren gorakada, indarkeria matxistak, giza eskubideen urraketa sistematikoa... Krisia zibilizazioarena eta sistemikoa da, eredu sozial eta ekonomikoarena. Baina garaiz da erokeria hori guztia gelditu eta bizitza erdigunean jartzeko; modu asko daude egoerari buelta emateko, kontsumo, isiltasun eta hazkunde amaigabearen pentsamendu bakarren aurrean. Tailer formatuko ikastaro honetan ikusiko dugu nola eragin dezakegun 4 eremutatik: energia, elikadura, zaintza eta ekonomia. "Aztertu, Aldarrikatu eta Aritu" delako metodologia jarraituko dute tailerrek, taldean lan eginez, eta ikus-entzunezkoen zein parte hartzeko dinamiken bidez.

2. ETENGABE HAZI AHAL GAITEZKE? DESAZKUNDEA, BIZITZA ERDIGUNEAN JARTZEKO ALTERNATIBA GISA

Hausnartu egingo dugu hazkunde mugagabearen oinarritutako sistema ekonomiko kapitalistari buruz eta desazkundearen joera alternatiboari buruz, ikuspegi feministatik. Desazkundea ekoizpena eta kontsumoa murriztearen aldekoa da, merkatuak alboratuz. Harreman sozialean, hurbiltasunean, austeritatean eta gutxiagorekin hobeto bizitzean oinarritutako ereduak proposatzen ditu, bizitzaren sostengua erdigunean jarriz.



3. KONTSUMO KONTZIENTE, ARDURATSU ETA ERALDATZAILEARI BURUZKO HASTAPENAK, IKUSPEGI FEMINISTATIK

Sistema kapitalistak eta kontsumismoak jendartean eta ingurumenean dituzten ondorioez hausnartuko dugu ikuspegi lokal-globaletik, baita patriarkatuarekin duten harreman onaz ere. Gainera, gure ingurune hurbilean dauden kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzaileari buruzko proposamen praktikoak ezagutuko ditugu, elikadura, banka, energia, zaintza eta abarri buruzkoak.

4. GIH-AK IKUSPEGI KRITIKOAREKIN AZTERTUZ

Garapen Iraunkorrerako Helburuak ezagutuko ditugu, eta aztertu egingo ditugu ikuspegi feministatik, ekologistatik eta giza eskubideen ikuspegitik. Gainera, ikuspegi

kritikotik aztertuko dugu 2030 Agendaren implementazioa, eta arreta jarriko dugu desparekotasun globaletan, botere-asimetrietan eta kontraesanetan.

5. BIZITZA JOKOAN: ANALISIA ETA PROPOSAMENAK KLIMA ETA ESKUBIDE KRISIAREN AURREAN

“Klima-aldaketaren” eta baikortasun teknologikoaren diskurtsoen aurrean, krisi klimatikoa edo ekosoziala eskubideen ikuspegitik aztertzen dugu. Agerian uzten dugu nortzuk diren erantzule nagusiak eta, jazarriak eta kriminalizatuak izan arren, Lurra eta Natura benetan defendatzen eta zaintzen ari direnak. Amaitzeko, gure planetan bizitzarekin bateragarria den eredu baten alde mobilizatzeke eta egunerokoan jarduteko gakoak, proposamenak, praktikak, aukerak eta alternatibak lantzen ditugu.

2.4. ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA ETA LANKIDETZA

1. NAZIOARTEKO LANKIDETZA ERALDAITZAILE BATEN BIDEAN

Hemengo eta Latinoamerikako hainbat kolektibo, erakunde eta gizarte-mugimendurekin metatutako lan-espereentzia guztiari esker, aurrera egin, aberastu eta hainbat proposamen garatu ahal izan ditugu. Hori guztia lankidetzatza epe laburrekoa eta paternalista izan ez dadin, baizik eta desberdintasunak iraultzen eta gizarteak eraldatzen benetan lagundu dezan. Horregatik, lankidetzatza kritikoa aldarrikatzen dugu, prozesuetan oinarritzen dena, ikuspegi globala eta feminista izango duena, eta gizarte-mugimenduei eta erakunde eraldatzaileei lagunduko diena.

2. GIZA ESKUBIDEEN ERREALITERA HURBILKETA: INDIBIDUALAK ETA KOLEKTIBOAK

Gai honetan, giza eskubide indibidual eta kolektiboen errealiteratza hurbiltzen saiatuko gara, funtsezko elementuak baitira jendarte askotarikoak eta benetan demokratikoak eraikitzeke. Horrela, lan-ardatz izango

ditugu giza eskubideen errealitatea, giza eskubide indibidualak eskubide kolektiborik gabe, giza eskubideen aldeko nazioarteko adierazpen eta itun nagusiak, eredu neoliberalak eta giza eskubideak.

3. ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA-PROZESU BAT LANTZEA IKUSPEGI FEMINISTAREKIN

Mugarik Gabe-n, Hezkuntza epe ertain/luzerako prozesua dela uste dugu, subjektu politiko aktibo bihurtuko gaituena, gure ahalduntzetik, emantzipaziotik eta autonomia pertsonaletik abiatuta, jendarte kapitalista eta patriarkala bestelako eredu bidezkoago, anitzago eta jasangarriago batean eraldatzea lortzeko. Nola irudikatzen eta martxan jartzen ditugu prozesu horiek? Tailer honetan urrats posible batzuk ezarriko ditugu, ikuspegi feminista duen hezkuntza-prozesu bat diseinatu eta ezartzeko. Horretarako, Mugarik Gabek beste elkarte eta mugimendu batzuekin batera aurrera eramandako eraldaketa sozialerako hezkuntzako praktika onak eta espereentziak baliatuko ditugu.



**mugarik
gabe**